

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek funtzionatu ahal izateko, hainbat baliabide behar izango ditu. Baliabide hauek hainbat sailetan sailkatu daitezke: baliabide fisikoak, baliabide intelektual eta finantza baliabideak.

Lehenik eta behin, baliabide intelektual eta giza baliabideak hartuko ditugu kontuan. Alde, batetik, gutako batek ekonomia izeneko ikasgaia eman zuenez, gure diru-sarreraren eta kostuen arteko balantza positiboa edo negatiboa den ikusteko gaitasuna izango du eta zerbait aldatzeko beharra egonez gero, hura zehazteko gaitasuna ere izango luke. Bestalde, gure beste bi taldekideek Industria teknologikoa izeneko ikasgaia izan zutenez, enpresa baten erabiltzen diren materialen eta prozesuen ingurukoa ezagutza maila handiago dute. Gainera, guztiok orain dela urte bat, web-gune bat sortu behar izan genuenez, esperientzia dugu jada, enpresa hoek izango duen online dendako web-gune sortzerako orduan. Honetaz gain, ezagutzera emateko erabiliko ditugun saren sozialak erabiltzen dakizkigu, guk ere hauetan kontu bat dugulako. Azkenik, guztion artean elkarlanean lan egiteko gaitasuna dugu.

Bigarrenik, baliabide fisikoei erreparatuko diegu. Hauek zehazteko, produktua sortzerako orduan jarraituko dugun prozesurako, zer baliabide beharko diren aztertuko dugu. Hasteko, instalazioak beharrezkoak izango dira, bai produktua sortzeko tailera bat, bai sortuko dugun enpresa kudeatzeko ofizina bat beharko dugulako. Behin hau izanda, bertan alde batetik, tailerrean erabiltzeko makinak, gure kasuan zulagailua eta bestetik, sistema informatiko bat beharko genukeen, internet bidez egin diren eskariak kudeatzeko, izango ditugun hornitzaileekin eta kontratatuko dugun garraio-enpresarekin kontaktuan jartzeko eta gure enpresaren ekonomia bertatik administratzeko.

Amaitzeko, finantza-baliabideak daude. Honen barruan diru-iturrien atalean zehaztu dugun bezala, gure aurrezkiak egongo ziren. Honetaz gain, diru-laguntza bat ere izango dugu, kontuan izanik, Oñatiko udaletxeak, enpresa berriei laguntzeko, alokairua 50€-an ordaintzen diela. Beraz, alokairuak izango duen kostua, beste edozein tokitan izango zena baino merkeagoa izango da.